

DIRU-SARRERAK

Gure diru iturri nagusia, betaurrekoen salmenta izango zen. Horretarako, ontzi ezagun batzuk izango ditugu kaleetan, betaurreko puskatuak edo erabilgarriak ez direnak bertan uzteko. Hauek kaxa baten barruan bota beharko dira eta kaxa honek kanpoan jabearen izen-abizenak idatziak izan beharko ditu, gero identifikagarriak izan daitezten. Jabe hauek %20ko deskontu baten trukea izango dute. Gure kostua kasu honetan ontzi hauek eta deskontu hauek izango lirateke.

Gure betaurrekoen prezioa, graduazioaren arabera izango litzateke, azken finean, graduazio handia duten betaurrekoak oso zailak dira aurkitzeko eta baita ere konpontzeko. Aldiz, prezio baxuena izango dutenak, graduazio txikiko betaurrekoak izango liratekeen, hauek konpontzea erraza delako eta ontzietan gehien aurkitzen direnak gradu baxukoak baitira.

Beraz, gure betaurrekoen prezioen batez bestekoa 50€ izango dira. Egunean, 15 betaurreko saltzea espero dugu. Beraz, gutxi gorabehera, egunean 750 €-ko diru-sarrerak izango genituen betaurreko salmentarekin.

Betaurrekoen salmentaz gain, beste zenbait zerbitzu eskainiko ditugu, adibidez, bezeroak haien betaurrekoak gure denda fisikora ekartzea eta guk konpontzea. Betaurreko bat konpontzearen prezioa 20€ prezioan izango dugu eta hilean 40 konponketa egiteko asmoa dugu.

Baita ere, lenteak soilik saltzeko aukera izango dugu. Hauek, lehen esan bezala graduazioaren arabera izango dira, beraz, gutxi gorabehera 40€ izango dira lente batzuk eta hilean 50 lente saltzea espero dugu.

Gehitzeko, betaurrekoen osagarriak izango ditugu, 5€ko prezioan gehienak. Adibidez, lenteak garbitzeko produktuak, betaurrekoak eusteko sokak, kaxak etab. Hilean 500 osagarri salduko ditugula pentsatzen dugu.

Beraz, hona hemen espero ditugun diru-sarreraren taula hilabetero (suposatuz hilak 30 egun dituela):

Diru-Iturria	Kopurua
Betaurrekoen salmenta	27000€

(60 x (15x30))	
Konponketa (20 x 40)	800€
Lenteak (40 x 50)	2000€
Osagarriak (5 x 500)	2500€
	32300€

Laburbilduz, 32300€ko diru sarrerak espero ditugu hilean negozio ideia honekin. Etekinak lortzen ditugun eanean, gure negozioa hazi egingo da. Urtean, 387600€-ko irabaziekin enpresa handitu ditzakegu. Marketinean edota beste zenbait zelaitan inbertitzen. Hala ere, zenbait bezeroei %20ko deskontua egingo diogunez, diru-sarrerak erabat jaitsiko ziren. Beraz, hilabete oso batean gure salmentak deskontuarekin egiten baditugu, gure diru-sarrerak 26900€-koa izango lirateke baina nola gure salmenta guztiak ez dituen deskontu hau izango, gure diru-sarrerak 26900€-32300€ artekoak izango dira.